



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

2017/2018 denboraldia

18 ZK.DUN ZIRKULARRA

EUSKADIKO FEDERAKUNDEAREN XXIII. GAZTE KOPA

Oraingo denboraldiko Lehiaketa Planak ezarritakoarekin batean, Euskadiko Futbol Federakundeak honako lehiaketa antolatuko du, ondorengo arauetara jarraiki:

1.- PARTE HARTUKO DUTEN KLUBAK

Izena eman duten hogeita zortzi talde hartuko dute parte, hurrengo eren bananduta

A) OHORE MAILA

Arenas Club, Danok Bat Club "A", Deportivo Alavés "A", Eibar S.D., eta Getxo C.D.

B) NAZIONAL MAILA

Antiguo'ko K.E. "B", Aurrera Vitoria C.D., Barakaldo C.F., Beasain S.D., Deportivo Alavés "B", Indartsu Club, Lagun Onak C.D., Leioa S.D., Real Sociedad de Fútbol "B", Santutxu F.C. "A" eta Tolosa C.F.

C) EUSKAL LIGA

Ariznabarra C.D., Arrupe Chaminade C.D., Astrabuduako F.T., Balmaseda F.C., Danok Bat Club "C", Deusto S.D., Gernika C.S.D., Olarizu C.D., Real Unión Club, Romo F.C., Santutxu F.C. "B" eta Vasconia C.D.

.../...



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

- 2 -

2. LEHIAKETA SISTEMA

Fase bitan egingo da :

1. Fasea

Lehiaketa honetarako 28 taldek izena eman duenez gero, egokiago ematen du klub horiek, zazpi taldeko lau multzotan banatzea.

Beraz, itzuli bakarreko liga sistemaren arabera jokatuko da.

Hurrengo faserako multzo bakoitzeko txapelduna sailkatuko da.

2. Fasea

Final aurrekoak

Partida biko kanporaketak, zozketa baten bitartez klasifikatuen artean.

“1” kanporaketa (I Multzoaren garailea III Multzoaren garailearen aurka)

“2” kanporaketa (II Multzoaren garailea IV Multzoaren garailearen aurka)


Finala

Final aurreetako irabazleek jokatuko dute finalean, “1” kanporaketaren garailearen zelaian jokatuko da partida.

3.- JOKALARIEN ZELAIRAKETA ETA ORDEZKAKETA

Parte hartzen duen mailako taldeak osatzen duen lehenengo taldeko gutxienez bost jokalarik parte hartu behar dute partidaren ihardura osoan zehar. Honetaz gain, bost aldaketa egin daitezke gehienez, zazpi aldagaien artetik.

.../...



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

- 3 -

4.- BERDINKETAK

EFFren Araudi Orokorrak ezarritako moduan desegingo dira berdinketak.

Partida amaituta, emaitza zeinahi dela ere, penaltiak jaurtiko dira talde bakoitzeko bost, harik eta talde bietako bat irabazle gertatzen den arte. Emaitza hori aintzakotzat hartuko da sailkapen orokorrean izan daitezkeen berdinketak desegiteko azken tresna moduan.

Bigarren Fasean eta azkeneko partiduan berdinketarekin amaitzen denean, hogeita hamar minutuko luzapena ospatuko da, hamabost minutuko bi denborekin, bosteko atsedenaldiarekin bereizitakoak, joko-eremua hautatzeko zozketa eginez. Luzapena amaitutakoan berdintasuna ebatziko ez balitz, penalti gunetik jaurtiketa batzuek egiteari ekingo litzaioke.

5.- DATAK

- 1. fasea : apirilak 29, maiatzak 1,6,13,20,27 eta 30.
- 2. fasea : - Final aurrekoak : ekainak 3 eta 10.
 - Finala : ekainak 16

6.- ARBITROAK

Nazional mailako arbitroak hautatuko dira partiduak zuzentzeko.

Ordainagiri bakarra 135€tako izango da.

7.- PARTIDEN ORDUTEGIAK

Ordutegia partida jokatu baino astebete lehenago jakinaraziko diote klubek Euskadiko Futbol Federakundeari. (Fax 94-473.22.21 P. Elektronikoa webmaster@eff-fvf.eus edo EFF web orrian)

Partidak larunbat arratsaldera aurreratu ahalko dituzte talde antolatzaileek, 15,30tik aurrera, aurkariaren oniritzia izan gabe ere.

Honetaz gain, ordu epea ezartzen da partiduak hasteko, hau da goizeko 10.30tik 13.00tara eta arratsaldeko 15.30tik 18.30ra. Epe honetatik kanpo hasiko dira partiduak, klubaren arteko akordioarekin, Honetaz gain, astean zehar jokatzen diren partidak asteko ordu epea 18.00 tik 19.30 ra izango da.



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

8.- GARAIKURRA

Euskadiko Federakundearen Kopa, talde irabazlearentzat eta irabazle ordearentzat.

Hogeitabost dolumina talde irabazlearentzat eta irabazle ordearentzat.


9.- DIZIPLINA BATZORDEA

Partidak amaituta, euskal federazioari helaraziko zaizkio arbitroen aktak, Diziiplina Batzordeak epaia plazara eta helaraz dezan, halakorik behar izanez gero.

Eta horren berri ematen diegu parte hartuko duten taldeei, lurraldeetako federazioei eta Euskadiko Arbitroen Batzordeari, behar duen orok jakin, eta dagozkion ondorioak ekar ditzan.

Bilbon, 2018eko apirilaren 11an

KEPA ALLICA BILBAO
Secretario General



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

COMPOSICION DE LOS GRUPOS
MULTZOEN OSAKETA

GRUPO I / 1. MULTZOA

- 1- ANTIGUO'KO K.E. "B"
- 2- C.D. AURRERA VITORIA
- 3- BARAKALDO C.F.
- 4- S.A.N.S.E.
- 5- ARENAS CLUB
- 6- TOLOSA C.F.
- 7- DEPORTIVO ALAVÉS "A"

GRUPO II / 2. MULTZOA

- 1- REAL SOCIEDAD DE F. "B"
- 2- ROMO F.C.
- 3- REAL UNIÓN CLUB
- 4- C.D. ARIZNABARRA
- 5- C.D. OLARIZU
- 6- DEPORTIVO ALAVÉS "B"
- 7- ASTRABUDUAKO F.T.

GRUPO III / 3. MULTZOA

- 1- S.D. LEIOA
- 2- DANOK BAT CLUB "A"
- 3- SANTUTXU F.C. "B"
- 4- SANTUTXU F.C. "A"
- 5- C.D. VASCONIA
- 6- INDARTSU CLUB
- 7- BALMASEDA F.C.

GRUPO IV / 4. MULTZOA

- 1- C.D. LAGUN ONAK
- 2- S.D. EIBAR
- 3- S.D. BEASAIN
- 4- DANOK BAT CLUB "C"
- 5- S.D. DEUSTO
- 6- C.D. GETXO
- 7- GERNIKA C.S.D.

-O-O-O-O-O-O-O-O-O-